

2- BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresaren balio proposamena argia da: garraio jasangarria, merkea, azkarra eta eroso eskaintzea, egungo hiri eta herrien beharretara egokitua.

Lehenik eta behin, gure zerbitzua ingurumenarekiko errespetuzkoa da. Patinete elektrikoek ez dute gas kutsatzailerik sortzen, eta horrek airearen kalitatea hobetzen laguntzen du. Gaur egun, klima-aldaketaren arazoa gero eta larriagoa denez, gizarteak gero eta gehiago baloratzen ditu kutsatzen ez duten garraio-bideak. Horregatik, gure enpresak ekarpen positiboa egiten du ingurumenaren zaintzan.

Bigarrenik, abiadura eta eraginkortasuna dira gure zerbitzuaren beste balio handi bat. Hiri barruan, autoek askotan ataskoak eta aparkatzeko arazoak izaten dituzte. Patinete elektrikoekin, ordea, bezeroek azkarrago mugi daitezke, distantzia laburrak modu eraginkorrean eginez. Horrek egunerokoan denbora aurrezte ahalbidetzen du, batez ere ikasle eta langileentzat.

Hirugarrenik, prezio lehiakorrek eskaintzen ditugu. Gure helburua da zerbitzua ahalik eta pertsona gehienentzat eskuragarria izatea. Horregatik, alokairu mota desberdinak eskaintzen ditugu: egunekoak, astekoak, hilekoak eta urtekoak. Horrela, bezero bakoitzak bere beharretara egokitzen den aukera hauta dezake.

Gainera, erabilera erraztasuna ere gure balio proposamenaren parte da. Patineteak erabiltzeko ez da esperientzia handirik behar, eta gure plataformaren bidez erreserba azkar eta sinpleak egin daitezke. Segurtasuna ere oso garrantzitsua da guretzat, horregatik patineteak egoera onean egongo dira beti eta erabiltzeko arauak argi azalduko dira.

Etorkizunera begira, balio proposamen hau mantenduz, enpresak ondo funtzionatzen badu, Bizkaia osora edo Euskal Herri osora zabaltzeko aukera izango luke, hiri eta herri bakoitzaren beharretara egokituz eta mugikortasun jasangarria sustatzen jarraituz.

